Klaretar Misiolariek sustatutako GGKE - ONGD promovida por los Misioneros Claretianos

# 2015eko txostena



proclade yanapay

www.procladeyanapay.org

**proclade yanapay**

Aurten ere, gardentasun-ariketa bat eginez, gure kontuak azaldu nahi ditugu argiro, batez ere babesa eman diguzuen pertsona eta erakundeoi begira.

> ETENGABE ALDATZEN ARI DEN MUNDU HONEK GU ERE ERAKUNDE GISA ETENGABE ALDA GAITEZEN ESKATZEN DIGU.

Azken urte hauetan, mugimendu kooperatiboak askotariko zailtasunak izan ditu, bizi dugun krisi ekonomikoaren eraginez eta erakunde ofizialek proposatu dituzten aurrekontu-politiken ondorioz, eta zailtasun horiek sentitzen ari gara gu ere. Horregatik, bidezkoa ez ezik gorestekoa ere bada zenbait erakundek eta pertsonak, eskuzabaltasun osoz, eman diguten laguntza, horien guztien laguntzari esker egin baititzakegu guk txosten honetan ageri diren ekintzak.

Gure aurrekontuaren bolumena pixka bat hazi da. Eta **Proclade Yanapay** erakundean lana ongi egiten ari garela berresten du horrek. Horretarako, behar-beharrezkoak izan dira talde teknikoak eta gure ondoan aritu diren erakunde laguntzaileek gure proposamenen kalitatea eta garrantzia hobetzeko emandako indarra eta egindako lan eta ahalegin izugarria.

Etengabe aldatzen ari den mundu honek gu ere erakunde gisa etengabe alda gaitezen eskatzen digu. Ildo horretatik, **genero-berdintasunaren alde erakundea aldatzeko abiarazi dugun prozesua** azpimarratu nahi dugu. Erakunde gisa gogoeta egiteko eta esparru horretan **Proclade Yanapay** erakundeak bizi duen egoerari buruz diagnostiko bat zehazteko balio izan digu prozesu horrek. Errealitatea beste ikuspegi batetik ikusteko ahaleginean ari gara, gizarte-eraldaketarako lan hobea egin ahal izateko. Garrantzi handikoa izan da zeregin horretan talde teknikoak eta boluntarioek izan duten inplikazioa.



**Proclade Yanapay** familia hazi egin da. Urritik, pertsona bat sartu da talde teknikoan, eta, haren zeregina, besteak beste, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan Garapenerako Hezkuntzaren arloan garatzen ditugun ekintzak dinamizatzea eta koordinatzea da.

> HAU GUZTIA EZINEZKOA ZATEKEEN, GURE OINARRI SOZIALAREN BABESIK GABE.

2015. urteko 9 proiektu nabarmendu nahi ditugu Garaperako Lankidetzaren esparruan; erakunde publikoek onartutako 9 proiektu dira ( (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, BFA, GFA, Nafarroako Gobernua, Bilboko Udala, Iruñeko Udala, Erroibarko Udala), eta, ildo horretatik, gure bazkideekin lanean jarraitu ahal izan dugu lan egiten dugun herrialdeetan.

Izan bedi txosten txiki hau zuen babes eta elkartasuna bihotz-bihotzetik eskertzeko adierazpide. Zuetariko bakoitzak lagundu izan ez baligu, ez ginatekeen iritsiko iritsi garen tokira. Eta 2016. urteari arrakastaz ekiteko prest gaude, zuei esker.

Eskerrik asko, **Proclade Yanapay** familiako kide zaretelako.

# Kontuak argi




**Diru-sarrerak:**

| | |
|---|---|
| Finantzaketa publikoa | 1.725.549,25 |
| Finantzaketa pribatua | 183.047,73 |
| Beste diru-sarrera batzuk | 7.612,49 |
| **Guztira** | **1.916.209,47** |




**Gastuak:**

| | |
|---|---|
| Lankidetza-proiektuak | 1.624.270,92 |
| Aitordetzako programa | 105.335,69 |
| GH eta Sentsibilizazioa | 45.640,43 |
| Langileak | 141.594,57 |
| Funtzionamendua eta kudeaketa | 44.791,25 |
| **Guztira** | **1.961.632,86** |

Kontu hauek guztiak gure **erakundearen egoitzan** eta erakundearen webgunean dituzue, "gardentasuna" atalean.
Aurreko ekitaldietan bezala, Easo Auditores-Consultores S.L etxeak ikuskatu ditu gure kontuak, eta Fundazioen Babeslaritzan aurkeztu dira.

## Non gaude?

**BILBAO**
San Francisco, 12 A
48003 Bilbao
Tel.: 944 165 950
bizkaia@procladeyanapay.org

**DONOSTIA**
Nafarroa Hiribidea, 1
20013 Donostia
Tel.: 943 298 055
gipuzkoa@procladeyanapay.org

**PAMPLONA**
Avenida Pío XII, 45
31008 Pamplona
Tel.: 948 250 400
navarra@procladeyanapay.org

---------------------

proclade@procladeyanapay.org

www.procladeyanapay.org

facebook.com/procladeyanapay

Twitter: @ProcladeYanapay

# Garapenerako Lankidetza

## Amerika

### EL SALVADOR

2015. urtean, herrialde horretako bi bazkiderekin lanean jarraitu dugu, **Movimiento Salvadoreño de Mujeres (MSM)** eta **CRIPDES** elkarteekin, hain zuzen. Azken erakunde horren bidez, **Cabañas-Cuscatlán mikroeskualdean, antolamendua indartzeko eta erakundeen eragina sustatzeko babesa ematen** jarraitu dugu, **genero-berdintasunean oinarritutako tokiko garapena sustatzeko.** 2014an hasitako bi proiektu babesten jarraitu dugu MSMrekin, eta lan berri bat hasi da gure bi proiektu berriren bidez. **Udalerrien garapenean emakumeen eta gazteen parte-hartze baldintzak hobetzeko** lan egin da horietan guztietan, eta aurrera egin ahal izan da emakumeen eskubideetan, batez ere, sexuarekin eta ugalketarekin lotuta dauden eskubideetan; indarkeriarik gabeko bizimodu aske baten alde ere lan egin da. Horrela, baztertzen dituzten eta pobrezia eta bidegabekeria handiagoko egoeretara bideratzen dituzten errealitateak aldatzen lan egin da.



### HONDURAS



Tokiko bazkidearekin, **San Pedro Sula hiriko Caritas elkartearekin**, lantzen ari garen bi lan-ildoak babesten jarraitu dugu aurten, Cortés departamenduan: **genero-indarkeriaren aurkako borroka, eta emakumeen ahalduntze ekonomikoa**. Horregatik, neskato eta nerabeen aurkako **indarkeria fisikoari eta genero-indarkeriari aurrea hartzeko eta egoera horietan laguntzeko** jada hasita dagoen proiektuari babesa ematen jarraitu dugu. Bestalde, bi urteko proiektu bat gauzatzen hasi gara, egoera zaurgarrian bizi diren **82 emakume gazteren enplegagarritasuna sustatzeko**, zaurgarritasun horren ondorioz segurtasunik gabeko egoeretan eta soldata txikien truke soilik lan egin dezaketela pentsatzen baitute eta, beraz, edozer enplegu mota onartzera bultzatzen baititu horrek.

### EKUADOR



2015ean, gure bazkide den **Maquita (MCCH)** tokiko erakundearekin lanean jarraitu dugu. Ekuadorko nekazaritza-inguruneetako ekoizleei (batez ere kakao-ekoizleei) gizarte-, antolamendu-, ekoizpen- eta merkataritza-arloetan laguntza ematera zuzentzen da gure lana batik bat, genero-berdintasunaren eta ingurumenaren ikuspegitik, betiere. 2015ean, kakaoaren inguruan Ekuadorko kostaldeko 6 probintziatako (Esmeraldas, Manabí, Guayas, El Oro, Los Ríos eta Bolívar) kakao-erakundeek antolatutako zirkuitu ekonomikoaren garapenari babesa ematen jarraitu dugu. Esmeraldas probintzian, kakaoa ekoizten duten 7 erakunderen merkaturatze-sarea sustatu dugu, elkarte eta ekoizle gisa indartzen ari diren erakundeak baitira. Los Ríos eta Manabí probintzietan ere, **baliabide gutxiko emakume ekoizleak ahalduntzen** lagunduko duen programa bat abiarazi da; gizartean eta ekonomian emakume horiek bizi duten zaurgarritasuna murriztuko da horrela, eta hiru jarduera-eremu hauetan lan egiten da: parte-hartze maila handiagoa eta antolaera sendoagoa sortzea; ekoizpen-bitartekoetan emakumeen sarbidea eta erabakimena hobetzea; eta produktuei irteera emateko zirkuitu ekonomiko solidarioak antolatzea.

# PERU

2015ean, gure bazkide den **CENDIPP** tokiko erakundearekin lanean jarraitu dugu, generoaren zeharkako ikuspegia hartuta tokiko garapen ekonomikoa bultzatzera bideratutako prozesuak sustatuz. Ate barrutian, programa bati ekin zitzaion 2014an El Agustino Barrutiko Enpresa Garapenerako Udal Zentroaren bidez, eta proiektu hori babesten jarraitu dugu. Ica departamenduan, mahats-ekoizle txikiek osatutako mikroenpresen ekoizpen- eta merkaturatze-gaitasunak sendotzen jarraitu da; kooperatiba bat sortu da horretarako, **iraupeneko ekonomiatik merkatu-ekonomiara jauzi egiteko** asmoz. Peruko Amazoniako Iquitos inguruan, arrantzale txikiak eta Nanay ibaiko arrain apaingarrien biltzaileak indartzeko prozesu bat hasi zen 2007an, eta babesa ematen jarraitu da, ingurumen-iraunkortasunaren eta genero-berdintasunaren ikuspegitik, betiere. Horrez gain, **lanean dihardugu Peruko Herrietako Sektoreetako Emakumeen Zentraleko ("Micaela Bastidas")** emakumeen eskubide ekonomikoak sendotzeko asmoz, Peruko 11 probintziatan; horretarako, emakume horien mikroenpresak eta elkarteak sustatu dira, berorien ahalduntzea bultzatu da, ekoizpen-, kudeaketa- eta merkaturatze-prozesuak hobetu dira, erakundeak indartu dira, eta eragin politikoa indartzeko ahalegina egin da.



# Afrika

**Kongoko Errepublika Demokratikoan**, tokiko gure bazkide nagusiari, **PRIACC** elkarteari, laguntzen jarraitu dugu; Dwe-ko Landa Inguruneko Erreferentziazko Osasun Zentroa abiarazteko erakundea da, eta **30.000 pertsona baino gehiago** artatzen dira zentro horretan. Orain arte, zentroko hainbat gela eraiki eta hornitu dira, eta gaixotasunak hautemateko izpien eta ekografien pabiloia hornitu ahal izan da aurten.





**Kosalan (Kamerun)**, proiektu bat sustatu da **Klaretar Misiolariek** kudeatutako lehen hezkuntzako bi eskolatako 400 ikasleren **elikadura osasungarria** bultzatzeko. Egoera zaurgarrietan bizi diren eta elikadura-nahasmenduak dituzten haurrak dira, eta aintzat hartu behar da egoera horrek zuzen-zuzenean eragiten duela eskola-absentismoan.

**Nigerian**, lehen hezkuntzako eta haur-hezkuntzako 30 neskato eta 20 mutiko eskolatzeko laguntza eman da **Klaretar Misiolariek kudeatutako Kala´a-ko eskolan**, eta, horrez gain, informatikako gela bat prestatzeko lokal bat, altzariak eta tresneria erosi dira. Muturreko pobrezian bizi da jendea inguru horretan, eta, Boko Haram talde terroristaren erasoen ondorioz bizibidea ateratzeko bitartekoak galdu ondoren, areagotu egin da pobrezia hori. Horren guztiaren ondorioz, familiak askok ezin diete aurre egin eskolatze-kostuei.



# Garapenerako Hezkuntza

2015ean, sarean lan egiten jarraitu da: **Euskadiko eta Nafarroako GGKEen koordinakundeetan**, lurraldeetako biltzarretan eta sentiberatze-jarduereetan parte hartuz, eta Eragin Politikoaren eta Sareen Batzordean esku hartuz. "**Mundu zabala, errealitatea anitz**" jardunaldien antolamenduan parte hartu da. **Donostiako eta Nafarroako Zero Pobrezia Plataformak** antolatutako jardueretan parte hartu da.

Horrez gain, Bilboko, Donostiako eta Iruñeko **Garapenerako Udal Kontseiluetan** parte hartzen du Proclade Yanapay erakundeak, bai eta **Lankidetzarako Nafarroako Kontseiluan** ere.

Horrez gain, Afrikan diharduten EAEko eta Nafarroako GGKEek osatzen duten **Afrikaren alde** taldeko kide gara. **Herri horiei eragiten dieten arazoen larritasuna** gizarteari eta erakundeei ikusaraztea da talde horren helburua, bai eta **Afrikarekin elkartasunez jokatzeko politikak** sustatzea ere, kontinente horren egoera aintzat hartuta.

Nafarroan, hainbat urte daramatzagu Garapenerako Hezkuntzako "**Elkartasunaren aldeko eskolak**" programan; Nafarroako ikastetxeei zuzentzen zaie programa hori. Parte hartzen dugu **FIARE Navarra** eta **REAS Navarra** elkarteetan ere.

Zenbait kanpaina egin dira ikastetxeetan eta parrokietan:

- "**Janaria ez da bota behar**". GGKEekin sarean landutako kanpaina bat da (SED, PROYDE, PROIDEBA, PROIDE, PROYDE-PROEGA, Edificando-CN, PROCLADE); adinaren arabera, hainbat material eta jarduera landu dira, zenbait gairen inguruan: birziklatzea, kontsumo arduratsua, biokontsumigarriak, bidezko merkataritza …




- "**Utzi aranasa hartzen**", Hau ere sarean landu da. SED, PROYDE, PROIDEBA, PROIDE, PROYDE-PROEGA, Edificando-CN, PROCLADE erakundeekin, Lurrarekin eta gizadiarekin bateragarria izango den garapen iraunkorra lortzearen garrantziaz jabearazteko eta eragile aktibo garen neurrian zeregin horretan parte-hartzea bultzatzeko. Gure aztarna ekologikoaren eraginak aztertzen dira gainera.




- **"Ipar Potosírekin bat" kanpaina.** Urrian, Askartza Claret ikastetxean (Leioa), Larraona ikastetxean (Iruñea) eta Mariaren Bihotza ikastola eta parrokian (Donostia) garatu zen, Boliviako inguru horretan Klaretar Misiolariak gauzatzen ari diren proiektua babesteko. Horretarako, material didaktikoak (fitxak, bideoa, bideojokoak) eta 11 panel biltzen dituen erakusketa bat (bi hizkuntzatan) erabili dira. Klaretarrek eta zenbait boluntariok parte hartu dute, ikasleei inguru horretako errealitatea ikusarazteko, abian diren proiektuen berri emateko eta aurrez aurre dituzten erronkak azaltzeko.

# Aitordetzako programa



**Bidezko merkataritzaz** sentiberatzeko jarduerak garatu dira, Askartza-Claret ikastetxean, Mariaren Bihotza parrokian eta Larraona ikastetxean postuak jarriz.

Hegoaldeko pertsonek egindako bisitez baliatuz, hainbat **hitzaldi** antolatzen ditu Proclade Yanapayek, **herritarrak sentiberatzeko eta** hainbat errealitateren aurrean **elkartasun-loturak sortzeko**.

Nafarroan, "**Afrika Behar Beharrezkoa"** GGKEen partzuergoan parte hartzen dugu. Partzuergo horrek jardunaldiak antolatzen ditu urtero, Afrikaren errealitatea nafarrengana gerturatzeko asmoz. 2015ean, partzuergoaren gidari izan gara Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren aurrean. Jarduerak garatu dira Tuteran, Burlatan eta Iruñean.




"**Yanapay"** buletina argitaratu da gaur egungo gaien eta lankidetzaren inguruan pertsonak kristau ikuspegi batetik sentiberatzeko. "**Apay**" aldizkaria haurrei babesa emateko programen eta finantzaketa pribatuko beste proiektu batzuen errealitateari buruz informazioa emateko argitalpen bat da.




**Boluntariotza:** hilabetean, Ipar Potosí ezagutzen eta inguru horretako eragileekin lankidetzan aritu dira bi lagun, Boliviako lurralde horren errealitatea zuzenena ezagutu eta gai horren inguruan sentiberatzeko. Handik itzuli direnena, beren esperientziaren berri eman dute hainbat unetan, argazkien eta ikus-entzunezko materialen bidez.



## BOLIVIA

Duela **30 urte baino lehenagotik, Potosíren iparraldeko haur eta gazteen hezkuntza-kalitatea hobetzea du helburu** proiektuak. Horretarako, **500 haur kitxua eta aimara baino gehiago hartzen dituzten** 4 barnetegiren ardura dute Klaretar Misiolariek.




## INDIA

Ikastetxe eta barnetegiak antolatu dituzte Klaretar Misiolariek, eta, berorietan, ostatua eta janaria emateaz gain, laguntza-eskolak eta kultura- eta jolas-izaerako jarduerak ere eskaintzen dituzte. Proiektu horrek dalit kastako eta behe-mailako beste kasta batzuetako **1.500 haurri baino gehiagori** dakarkie onura.

## TANZANIA, KENYA, GHANA ETA UGANDA

Hezkuntzan sarbidea izatea zaila da herrialde horietan, eta, horregatik, aukera ematen zaie haurrei ikasteko eta jatekoa izateko Klaretar Misiolarien bidez. **400 haur inguruři** laguntzen zaie horrela.

# Animatu eta parte hartu!

Animatu zaitez Proclade Yanapayko **Bazkide** izatera, horrela lagunduko duzu proiektu eta ekintzetan. Bete formularioa eta Proclade Yanapayko ofizina batea eman edo bidali helbide honetara San Francisco Kalea 12A 48003 Bilbao (Bizkaia). Nahi izanez gero, gure webgunearen bitartez: **www.procladeyanapay.org,** "¿Qué puedes hacer?" sekziotik, egin dezakezu.

| Izen-abizenak | | NAN | Telefonoa |
|---|---|---|---|
| | | | |
| Helbidea | | Helbide elektronikoa | |
| | | | |
| P.K. | Herria | Probintzia | |
| | | | |

Proclade Yanapay Fundazioari nire laguntza eman nahi diot ondoko **kantitate** eta **maiztasunaren** bidez:

Kantitatea: ☐ Maiztasuna: Hilero: ☐ Sei hilez behin: ☐ Hiru hilez behin: ☐ Urtero: ☐

Nire diru laguntza honela bideratuko dut:

☐ Fundazioaren kontu batean dirua sartuz edo bankuko transferentzia baten bidez (bidal iezaguzu, mesedez, diru sarreraren agiria)

| | | | |
|---|---|---|---|
| FIARE Banca Coop.: | ES80 1550 0001 23 0000702621 | Laboral Kutxa: | ES30 3035 0096 35 0960012743 |
| Kutxabank: | ES23 2095 0106 80 9108036531 | CaixaBank: | ES34 2100 5306 38 2100938170 |

☐ Bankuko helbideratzearen bidez. Jarri, mesedez, zure kontu korrontearen datuak:

Jabea:

Kontrakoa adierazi bitartean, Proclade Yanapay-k nire kontu honetara bidaliko duen erreziboa onartzea eskertuko nuke.

Data: Sinadura:

Proclade Yanapay Fundazioari emandako diru laguntzek Errenta Aitorpenean dagozkion desgrabazioa dutela gogorarazten dizugu.

Norberaren datuen babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari jarraiki, zure datu pertsonalak PROCLADE YANAPAY Fundazioak eratutako eta bere erantzukizuna den norberaren datuetarako fitxategi batean jasoko ditugula jakinarazten dizugu; datu hauek zurekin lotzen gaituen harremana mantendu eta kudeatzeko erabiliko ditugu, baita ematen diguzun laguntza bukatu ondoren ere. PROCLADE YANAPAY Fundazioak zuri, datuen jabeari, sarbide, zuzenketa, oposaketa eta deuseztatze eskubidea bermatzen dizu; horretarako, jarraian ageri den helbidera idatzirik eta sinatutako eskaera bat bidali behar delarik: San Francisco kalea, 12 A, 48003 Bilbao (Bizkaia). Edozein kasutan, datu hauen jabeak, jakinaren gainean egonda, bere datuak, dagozkion segurtasun eta sekretu profesionalaren neurriak hartuta, mantentzeko baimena ematen du.

## Enpresak edo erakundeak

**Proclade Yanapay** erakundean, badakigu zer-nolako zeregina betetzen duten enpresek gizarte-ehunean, eta, horregatik, ondo dakigu funtsezko eragileak direla gizarte-aldaketan.

Zure enpresaren edo erakundearen neurria edo sektorea dena delakoa delarik ere, pobreziaren aurka borroka egin dezakezu. Enpresaren inbertsio soziala da, kooperatibaren edo enpresaren gizarte-erantzukizunaren aplikazio praktikoa.

Horregatik, enpresekin ere lan egin nahi dugu **Proclade Yanapay** erakundean, garapen-proiektuak eta misio-proiektuak babesteko aukera emango diguten aliantzak eraikiz, bidezkoagoa, elkartasun handiagokoa eta anaitasunezkoa izango den mundu baten alde elkarrekin lan egiteko.

Horregatik, zuen enpresan lankidetza sustatzera bultzatu nahi zaituztegu, behar handienak dituzten pertsonen alde laguntzeko. Elkarrekin lan eginez, pertsona askoren bizi-baldintzak hobetuko ditugu, eta guztiontzat mundu gizatiarragoa eraikitzen lagunduko dugu.

Klaretar Misiolariek sustatutako GGKE - ONGD promovida por los Misioneros Claretianos

# memoria 2015



proclade yanapay

www.procladeyanapay.org

Un año más, hacemos un ejercicio de transparencia y rendición de cuentas, dirigido especialmente a las personas e instituciones que nos habéis apoyado.

UN MUNDO EN PLENO CAMBIO NOS EXIGE TRANSFORMARNOS COMO ORGANIZACIÓN.

En estos últimos años venimos sintiendo las dificultades por las que atraviesa el movimiento cooperativo debido a la crisis económica y a las políticas presupuestarias propuestas por los organismos oficiales. Por ello, es encomiable y justo reseñar, la colaboración que venimos recibiendo de algunos organismos y de muchas personas desinteresadas que con su apoyo hacen que podamos desarrollar las acciones que aparecen en esta memoria.

El volumen de nuestro presupuesto se ha incrementado un poco. Esto confirma el buen trabajo que se está desarrollando en **Proclade Yanapay**. Para ello, ha sido necesario insertar una dosis extra de energías, trabajo y esfuerzo del equipo técnico y de las organizaciones aliadas, para mejorar la calidad y la pertinencia de nuestras propuestas.

Un mundo en pleno cambio nos exige transformarnos como organización. En este sentido tenemos que destacar el camino que hemos iniciado en el **proceso de cambio organizacional pro equidad de género**. Este proceso nos ha permitido realizar reflexiones a nivel de organización y elaborar un diagnóstico sobre la situación en la que se encuentra en este ámbito **Proclade Yanapay**. Estamos intentando ver la realidad desde otro prisma que nos permita hacer un mejor trabajo de transformación social. La implicación en esta tarea tanto del equipo técnico, como del voluntariado ha sido muy importante.



La familia de **Proclade Yanapay** ha crecido. Desde octubre se ha incorporado una persona al equipo técnico; su responsabilidad es, entre otras cosas, la de dinamizar y coordinar las acciones de Educación para Desarrollo que desarrollamos en Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra.

TODO ESTE TRABAJO NO HUBIERA SIDO POSIBLE SIN EL RESPALDO DE NUESTRA BASE SOCIAL.

En este 2015 queremos destacar los 9 proyectos de Cooperación al Desarrollo que nos han aprobado las instituciones públicas (AVCD, DFB, DFG, Gº de Navarra, Ayto. Bilbao, Ayto. Pamplona y Ayto Valle de Erro); pudiendo, de esta manera, continuar el trabajo con nuestras socias locales en los diferentes países donde trabajamos.

Sirva esta pequeña memoria como una expresión de nuestro profundo agradecimiento por vuestro apoyo y vuestra solidaridad. Sin cada una de vosotras y de vosotros no hubiéramos podido llegar hasta donde lo hemos hecho. Y, claro está, con vosotras y vosotros, podremos afrontar con éxito este año 2016.

Gracias por formar parte de la Familia de **Proclade Yanapay**.







# las cuentas claras

**Ingresos:**

| | |
|---|---|
| Financiación Pública | 1.725.549,25 |
| Financiación Privada | 183.047,73 |
| Otros Ingresos | 7.612,49 |
| **Total** | **1.916.209,47** |

**Gastos:**

| | |
|---|---|
| Proyectos de Cooperación | 1.624.270,92 |
| Programa Apadrinamientos | 105.335,69 |
| EpD y Sensibilización | 45.640,43 |
| Personal | 141.594,57 |
| Funcionamiento y Gestión | 44.791,25 |
| **Total** | **1.961.632,86** |

Estas cuentas están disponibles en nuestra **sede social** y en la página web de la organización, en la sección “transparencia”.
Al igual que en ejercicios anteriores, nuestras cuentas ha sido auditadas por Easo Auditores-Consultores S.L y se han presentado en el Protectorado de Fundaciones.

## ¿Dónde estamos?

**BILBAO**
San Francisco, 12 A
48003 Bilbao
Tel.: 944 165 950
bizkaia@procladeyanapay.org

**DONOSTIA**
Nafarroa Hiribidea, 1
20013 Donostia
Tel.: 943 298 055
gipuzkoa@procladeyanapay.org

**PAMPLONA**
Avenida Pío XII, 45
31008 Pamplona
Tel.: 948 250 400
navarra@procladeyanapay.org

---------------------

proclade@procladeyanapay.org

www.procladeyanapay.org

facebook.com/procladeyanapay

Twitter: @ProcladeYanapay

# cooperación al desarrollo

## EL SALVADOR

Durante el año 2015 hemos continuado trabajando con nuestras dos socias locales en el país, el **Movimiento Salvadoreño de Mujeres (MSM)** y **CRIPDES**. Con esta última, hemos seguido apoyando el **trabajo organizativo y de incidencia de las organizaciones de la micro-región de Cabañas-Cuscatlán para favorecer un desarrollo local con equidad de género**. Y con el MSM, se ha continuado apoyando dos proyectos iniciados en el año 2014 y se ha abierto nuevo trabajo con dos nuevos proyectos. En todos ellos se realiza un trabajo para **mejorar las condiciones de participación de mujeres y jóvenes en el desarrollo de sus municipios**, favoreciendo el avance de los derechos de las mujeres, especialmente de los derechos sexuales y reproductivos y a una vida libre de violencia, transformando así unas realidades que las marginan y relegan a situaciones de mayor pobreza e injusticia.





## HONDURAS

Durante este año hemos seguido apoyando las dos principales líneas de trabajo que mantenemos con nuestra socia local, **Caritas de San Pedro Sula**, presente en el departamento de Cortés: **la lucha contra la violencia de género y el empoderamiento económico de las mujeres**. Por ello, se ha continuado apoyando un proyecto ya iniciado de **prevención y atención a la problemática de violencia física y sexual** contra niñas y adolescentes. Por otra parte, se ha comenzado la ejecución de un proyecto bienal con el que se pretende propiciar la **empleabilidad de 82 mujeres jóvenes** en situación de vulnerabilidad, lo cual hace que consideren que sólo pueden aspirar a trabajar en condiciones inseguras, por salarios bajos y, por consiguiente, acepten cualquier empleo.

# América

## ECUADOR



Durante 2015 continuamos nuestro trabajo conjunto con nuestra socia local **Maquita (MCCH)**. Nuestro trabajo se centra en el **apoyo socio-organizativo, productivo y comercial de productoras y productores**, principalmente de cacao, de la zona rural ecuatoriana, desde un enfoque de género y medioambiental. En 2015 hemos continuado apoyando el desarrollo de un circuito económico en torno al cacao, llevado a cabo por organizaciones cacaoteras de 6 provincias de la costa Ecuatoriana (Esmeraldas, Manabí, Guayas, El Oro, Los Ríos y Bolívar). En la provincia de Esmeraldas, hemos impulsado una Red de comercialización comunitaria de 7 organizaciones productoras de cacao gracias a su fortalecimiento asociativo y productivo. También, en las provincias de Los Ríos y Manabí, se ha iniciado un programa que contribuirá al **empoderamiento de las mujeres productoras de escasos recursos**, disminuyendo su vulnerabilidad social y económica, con tres ámbitos de actuación: generar un mayor nivel de participación y organización; mejorar el acceso y poder de decisión de las mujeres en los medios productivos; y la articulación de circuitos económicos solidarios para dar salida a los productos.

# PERÚ

Durante el año 2015, hemos continuando trabajando con nuestra Socia Local **CENDIPP**, apoyando procesos enfocados al Desarrollo económico local desde un enfoque transversal de género. En el distrito de Ate, se ha continuado con el apoyo iniciado en 2014 a un Programa que se está desarrollando a través del Centro Municipal de Desarrollo Empresarial del Distrito de El Agustino. En el Departamento de Ica, se sigue impulsando la consolidación de las capacidades productivas y de comercialización de microempresas de pequeños y pequeñas productoras de uva, constituyendo una Cooperativa con la intención de **pasar de una economía de subsistencia a una de mercado**. En la zona de Iquitos en la Amazonía peruana, se continúa apoyando el proceso iniciado en 2007 para fortalecer a pequeños y pequeñas pescadoras y acopiadoras de peces ornamentales del Río Nanay, con un enfoque de sostenibilidad medioambiental y equidad de género. También **seguimos trabajando en el fortalecimiento de los derechos económicos de mujeres pertenecientes a la Central Nacional de Mujeres de Sectores Populares del Perú "Micaela Bastidas"** en 11 Provincias de Perú a través del fortalecimiento de sus microempresas y sus asociaciones, potenciando su empoderamiento y mejorando sus procesos de producción, gestión, comercialización, consolidación institucional e incidencia política.



En la **República Democrática del Congo** hemos continuado apoyando el trabajo de nuestra socia local **PRIACC** para la puesta en marcha del Centro Rural de Salud de Referencia en Dwe, donde se atiende a una población de **más de 30.000 personas**. Hasta el momento se han construido y equipado distintas dependencias del centro y este año ha sido posible equipar el pabellón de rayos y ecografías para la detección de multitud de enfermedades.



# África

En **Kosala (Camerún)** se ha apoyado un proyecto con el que se pretende favorecer la **alimentación saludable** de 400 alumnas y alumnos de dos escuelas de educación primaria gestionadas por los **Misioneros Claretianos**. Son niños y niñas en situación de vulnerabilidad, con trastornos nutricionales, lo cual incide directamente en el absentismo escolar.



En **Nigeria** se ha apoyado en la **escuela de Kala´a**, gestionada por los **Misioneros Claretianos**, la escolarización de 30 chicas y 20 chicos de educación infantil y primaria, y se ha preparado un local y adquirido mobiliario y equipos para la puesta en marcha de un aula de informática. Es una zona de extrema pobreza, agudizada por la pérdida de medios de vida tras los ataques del grupo terrorista Boko Haram, lo que hace que muchas familias no pueden hacer frente a los costes de la escolarización.



# Educación para el desarrollo

En este 2015 se ha continuado trabajando en red: En las **Coordinadoras de ONGDs de Euskadi y Navarra**. Participando en las Asambleas territoriales, en actividades de sensibilización y participando en la comisión de Incidencia Política y Redes. Se ha participado en la organización de las jornadas "**Otros mundos, otras realidades**". Se ha participado en las actividades organizadas por la **Plataforma Pobreza Cero/Zero Pobrezia Plataforma de Donostia y Navarra**.

Asimismo, Proclade Yanapay forma parte de los **Consejos de Municipales de Desarrollo** de Bilbao, Donostia y Pamplona y del **Consejo Navarro de Cooperación**.

Formamos parte del **Grupo Pro-África**, constituido por ONGD de la CAPV y Navarra que trabajan en este continente. El objetivo del grupo es hacer crecer en nuestra sociedad e instituciones la conciencia acerca de **la magnitud de los problemas que afectan a estos pueblos**, así como promover **políticas de solidaridad con África** acordes a la situación del continente.

En Navarra llevamos participando varios años Programa de Educación para el Desarrollo "**Escuela Solidarias**" dirigido a los centros educativos de Navarra.

Participamos en la **Asociación FIARE Navarra** y **REAS Navarra**.

Se han realizado varias campañas en centros educativos y parroquias:

- "**Janaria ez da bota behar – La comida no se tira**". Se trata de una campaña elaborada en red con las ONGDs (SED, PROYDE, PROIDEBA, PROIDE, PROYDE-PROEGA, Edificando-CN, PROCLADE), en la que se han trabajado, por edades, diferentes materiales y actividades con temas como: reciclaje, consumo responsable, biocombustibles, comercio justo…




- "**Utzi aranasa hartzen -Dales un respiro**", (también elaborada en red con SED, PROYDE, PROIDEBA, PROIDE, PROYDE-PROEGA, Edificando-CN, PROCLADE), para impulsar la concienciación y participación como agentes activos para la consecución de un desarrollo sostenible, con el planeta y con la humanidad. Analizando los impactos de nuestra huella ecológica.




- **Campaña "Unidos al Norte de Potosí"**. En octubre se llevó a cabo en el colegio Askartza Claret (Leioa), en el colegio Larraona (Pamplona), en la ikastola y en la parroquia Mariaren Bihotza (Donostia) de apoyo al proyecto educativo que los Misioneros Claretianos llevan a cabo en esta zona de Bolivia. Para ello, se cuenta con materiales didácticos (fichas, vídeos, videojuegos) y una exposición con 11 paneles bilingües. Se ha contado con la presencia de claretianos y personas voluntarias para sensibilizar al alumnado sobre la realidad de la zona, explicar los proyectos en marcha y los nuevos retos a afrontar.

# Programa de Apadrinamientos



Se han desarrollado actividades para sensibilizar sobre el **comercio justo**, a través de la instalación de puestos el colegio Askartza-Claret, en la Parroquia Mariaren Bihotza y en el Colegio Larraona.

Aprovechando la visita de personas del Sur, desde Proclade Yanapay se organizan **charlas que posibiliten la sensibilización de la ciudadanía y la creación de vínculos de solidaridad** con las distintas realidades.

También formamos parte en Navarra del consorcio de ONGDs "**África imprescindible**", consorcio que anualmente celebra unas jornadas con la intención de acercar la realidad africana a la población Navarra. Durante el 2015 hemos liderado el consorcio frente al Gobierno de Navarra y Ayuntamiento de Pamplona. Se han realizado actividades en: Tudela, Burlada y Pamplona.

Se han publicado el **Boletín "Yanapay"** Para sensibilizar a las personas sobre temas actuales y solidarios desde una perspectiva cristiana. La **Revista "Apay"**. Es una revista de información sobre la realidad del programa de apadrinamientos y de otros proyectos de financiación privada.




**Voluntariado:** Durante un mes 2 personas han estado conociendo y colaborando con el Norte de Potosí (Bolivia), con el fin de sensibilizarse de primera mano con la realidad de este rincón de Bolivia. A su regreso han compartido su experiencia en diferentes momentos, con la ayuda de fotos y material audiovisual.



## BOLIVIA

El objetivo de este proyecto, desde hace **más de 30 años**, es **mejorar la calidad educativa de la población infantil y juvenil del Norte del Potosí**. Para ello, los Misioneros Claretianos atienden 4 internados que acogen a **más de 500 niños y niñas quechuas y aymaras**.




## INDIA

Los Misioneros Claretianos han organizado colegios e Internados, en los que se ofrece además de alojamiento y comida, clases de apoyo y actividades culturales y lúdicas. Hay **más de 1.500 niños y niñas dálits y de otras castas bajas** beneficiándose de este proyecto.

## TANZANIA, KENIA, GHANA Y UGANDA

El acceso a la educación en estos países es difícil, por eso a través de los Misioneros Claretianos se posibilita a niños y niñas acceder a los estudios y proporcionales una alimentación necesaria. Aproximadamente **400 niños y niñas** se ven beneficiados de esta ayuda.

# ¡Únete a Proclade Yanapay!

Anímate a hacerte **Socio/a Colaborador/a** de Proclade Yanapay, de esta manera apoyarás sus acciones y proyectos. Rellena este sencillo formulario y entrégalo en una oficina de Proclade Yanapay, o envíalo por correo postal a San Francisco Kalea 12A 48003 Bilbao (Bizkaia). Si lo prefieres, también puedes hacerlo a través de la sección "¿Qué puedes hacer?" de nuestra web: **www.procladeyanapay.org**.

| Nombre y apellido | | DNI | Teléfono |
|---|---|---|---|
| | | | |
| Dirección | | Correo electrónico | |
| | | | |
| C.P. | Población | Provincia | |
| | | | |

Deseo colaborar con la Fundación Proclade Yanapay con la siguiente **cantidad y periodicidad**:

Importe total: ☐ Periodicidad: Mensual: ☐ Semestral: ☐ Trimestral: ☐ Anual: ☐

Realizaré mi donativo de la siguiente manera:

☐ Ingreso o transferencia bancaria a una cuenta de la Fundación (adjunte, por favor, el justificante del ingreso)

| | | | |
|---|---|---|---|
| FIARE Banca Coop.: | ES80 1550 0001 23 0000702621 | Laboral Kutxa: | ES30 3035 0096 35 0960012743 |
| Kutxabank: | ES23 2095 0106 80 9108036531 | CaixaBank: | ES34 2100 5306 38 2100938170 |

☐ A través de Domiciliación Bancaria. Señale a continuación los datos de su cuenta corriente:

Titular de la cuenta:

☐☐☐☐ ☐☐☐☐ ☐☐☐☐ ☐☐ ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐

Le agradecería que, con cargo a mi cuenta, atienda, hasta nueva orden, el recibo que presentará Proclade Yanapay.

Fecha: Firma de la persona titular de la cuenta:

Recordamos que los donativos a la Fundación Proclade Yanapay tienen su correspondiente desgravación en la Declaración de la Renta.

En cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, le informamos de que sus datos personales serán incorporados a un Fichero de Datos de Carácter Personal, titularidad de PROCLADE YANAPAY como Responsable del Fichero, con la finalidad de mantener la relación que nos une a Ud., incluso una vez finalizada su colaboración con nosotros. PROCLADE YANAPAY garantiza al titular de los datos el ejercicio de los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición de los datos que le conciernen, debiendo, para ello, dirigirse mediante comunicación escrita a la siguiente dirección: C/ San Francisco, nº 12 A, 48003 Bilbao (Bizkaia). En cualquier caso, el titular de los datos resulta informado y consiente en la conservación de dichos datos bajo las debidas condiciones de seguridad y secreto profesional.

## Empresas o entidades

En **Proclade Yanapay** somos conscientes del papel que las empresas juegan en el tejido social y por ello estamos convencidos de que deben ser un actor clave en el cambio social.

Sea cual sea el tamaño o sector de tu empresa o entidad, puede participar en la lucha contra la pobreza. Es la inversión social de la empresa, la aplicación práctica de la Responsabilidad Social Corporativa (RSC) o Empresarial (RSE).

Por eso en **Proclade Yanapay** también queremos trabajar con empresas, construyendo alianzas que nos permitan apoyar proyectos de desarrollo y misioneros, y contribuir, de este modo, juntos a un mundo más justo, más solidario y más fraterno.

Por ello os animamos a que impulséis la colaboración de vuestra empresa en favor de las personas más desfavorecidas. En colaboración, podremos ayudar a mejorar las condiciones de vida de muchas personas y a construir un mundo más humano para todas las personas.